

Urteak pasatu dira Uribe Kostako Mankomunitateak eta Getxoko Udalak euren Euskara Zerbitzuen bitartez Uribe Kostako ahozko ondarea jasotzen hasi zirenetik.

Bi urtetan hainbat audio eta bideo grabaketa egin izan zaizkie eskualde honetako 120 pertsona baino gehiagori. Uribe Kosta eta Getxoko jendearen mendeetako bizimodu, pentsaera, lanbide, sineskera... jaso nahi izan da eta hori bakarrik euskararen bidez egin ahal zen, bizkaiera beraren barruan ere galtzen dagoen azpieuskalki baten bidez.

Lan hau ez da beraz azterketa filologiko bat; lan honetan euskarak mundu ikuskera bat islatzen du, galtzen dagoen baina oraindik gauza probetxugarri asko dituen mundu ikuskera.

Bere bizitzako lehenengo urteak prestatu eta ikasteko erabiltzen dituen umeak legez, lehenengo pausuetan ondorenean egingo diren pausu guztien oinarriak jarri nahi izan dira eta lehenengo pausu hauek ikastetxera garamatzate; antzinakoengandik jasotakoa ondoren datozenei kontatzera.

Ikastetxeetarako prestatutako material didaktiko hau, 4 liburu eta DVD batek osatzen du. Alde batetik Haur hezkuntza eta Lehen hezkuntzako ziklo bakoitzerako liburu bana argitaratu da eta bestetik DVDa. DVD honetan, liburuetan dagoen guztia jasotzen da eta kopiak egiteko aukera ematen du. Aukera eman ez bakarrik, gonbidapena ere egiten du, lan honek benetan balioa izango duelako erabiltzen bada.

Material hau, material irekia da, ez bakarrik erabiltzen ari zaretenean lanaren ibilbidea osatzen ari zaretelako baizik eta erabiltzen ari zaretela ekarpenak egitea, kopiatzea, curriculumetan txertatzea eta aberastea eskatuko dizuelako.

Amaitzeko Uribe Kostako Mankomunitateak eta Getxoko Udalak eskerrak eman nahi dizkie liburu eta DVD hauek egin ahal izateko euren etxeetako ateak zabaldu eta euren jakituriaren zati bat gurekin konpartitzeko ahalegina egin izan duten pertsona guztiei.

Getxoko Udala eta Uribe Kostako Mankomunitatea

*Zer ikusi, ha ikasi! Uribe Kosta* izeneko material honen helburua, gure eskualdearen euskal ondare etnografikoa eta linguistikoa batu, sailkatu, landu eta berarekin Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako umeentzako Euskal Curriculumean txertagarri den material didaktiko-pedagogikoa eskaintzea izan da.

Materialok era didaktikorik egokienean prestatu dira, ikastetxeetan irakasleek edota etxeetan gurasoek umeekin erabiltzeko modukoak izan daitezten. Lan hau euskarri informatikoan eta paperezkoan aurkezten dugu, biok elkarren osagarri direlakoan: DVDa eta gida didaktikoa.

Ikerketa-lan hau urte bitan burutu da. Landa-lana egiteko ama-hizkuntza bertako azpieuskalkia duten 120 informante elkarrizketatu eta grabatu ditugu (bai audioz eta bai bideoz) eta eurekin ia 500 orduko grabazioak egin dira.

Grabazioetan herrietako ondare etnografikoa (eguneroko bizimodua, lanbideak, ohiturak, olgetak, urte-sasoiei lotutako ekintzak eta errituak...), ondare lexikala (berbak, esaera zaharrak, esamoduak...) eta ondare etnolinguistikoa (kantak, ipuinak, bertsoak...) batu da. Horretarako berenberegiko galdetegia atondu da eta bertan hamaikatxo arlo bildu dira, beti ere Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako umeentzako erazkoak diren gaiak zehaztuta, eta Eskola Curriculumeko eredu eta irizpideei jarraituta.

Eskualdeko herri-jakituria eta kultura tradizioa modu sistematikoaz eta metodologikoz batuta, berreskuratze kultural eta linguistikoari ekin diogu; eta ahoz bildutako materialak egokituta eta plazaratuta, gizarteari eredu baliagarriak eta irakaskuntzarako erreferentzia egokiak eskaintzeaz gain, bere aberastasunari eutsi eta iraunaraziko diogu. Era horretara aurrekoak izan ziren moduan, ostekoak ere, ondasun horren jabe eta jagole izan daitezten.

Horretarako euskal hizkuntza, kantu, ohitura, eta azken baten euskal kulturari buruzko zaletasuna sortu, indartu eta zolitu egin beharko dugu, baina ez ume eta gazteengan bakarrik; helduen, irakasleen eta gurasoen artean ere bai, eurak direlako gure kultura ondareori ezagutarazteko eta irakasteko arduradunak.

Amaitu baino lehen eskerrak eman gura dizkizuegu lan hau egiten lagundu diguzuen informante guztioi; eskerrak, gure herriaren ondarea eta hizkuntza sakon ere sakon gordetzen jakin duzuelako batetik, eta eskerrak baita, gure itaunei egonarri handiz, patxada onez eta umorez erantzun diezuelako. Zuek berbalaguntzat edukitzea benetan ere gozagarri izan da guretzat. Eskerrak bihotz-bihotzez.

Eskertu gura ditugu era berean, Getxoko Udala eta Uribe Kosta Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, guztiontzat probetxugarri izango diren era honetako proiektuak bideratu eta bultzatzearen.

Herri Ondare Arloa

Labayru Ikastegia